

HAUR2DE:

GURASOEN EMOZIOAK, HAURREN ETORKIZUNAREN OINARRI.

2. CANVAS

2.2 MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

GURE BEZEROAK:

Bezero nagusiak haurdun dauden emakumeak dira, haurdunaldiaren edozein fasetan daudenak, eta informazioa, aholkularitza, akonpainamendua eta laguntza emozionala edo fisikoa bilatzen dutenak. Guregana hurbildu daitezke emakume hauek beraien erreferenteak diren pertsonekin.

Etorkizunean, merkatua zabaltzeko, adibidez, erditu berri diren emakumeentzat edo bikoteentzako prestaketa-tailerrak eskainiz.

GURE BEZEROEN EZAUGARRIAK:

- Ezaugarri demografikoak:
 - Generoa: emakumea
 - Adina: 16 – 45 urte bitartean (gehienetan)
 - Bizitza-egoera: haurdun daudenak edo ama izateko prozesuan daudenak.
 - Familia-egoera: bikotearekin, bakarrik, erreferentea den pertsonarekin (haurdun dagoen pertsonaren ama/aita), lehenengo edo bigarren haurdunaldia izatea, etab.
 - Egoera ekonomikoa: ertaina edo ertain-altua, ongizatea eta arreta pertsonalizatua bilatzen dutenak.
- Ezaugarri psikografikoak:
 - Osasunarekiko eta ongizatearekiko interes handia.
 - Emakume aktiboak eta informatuak, beren gorputzari eta haurraren garapenari buruz gehiago jakin nahi dutenak.
 - Segurtasuna, babesa eta komunitate-sentimendua bilatzen dutenak.
 - Balioak: zaintza, naturaltasuna, konfiantza, profesionaltasuna eta emakumeen arteko elkartasuna.
- Ezaugarri geografikoak:
 - Hasieran tokiko edo eskualdeko merkatuari zuzenduta.
 - Etorkizunean online plataformaren bidez merkatu zabalago batera zabaltzeko aukera.
- Portaerazko ezaugarriak:
 - Sare sozialen eta informazio digitalaren erabiltzaile aktiboak.
 - Prestatutako profesionalen aholkularitza bilatzen dutenak.
 - Esker onez baloratzen dute laguntza emozionala eta komunitatea.